

TORRUELLA, M.F. eta JIMÉNEZ, L. (coord.) (2015)

*Ciencias Sociales y Educación Infantil. Cuando despertó el mundo estaba allí. Barcelona: Graó.*

Izenburuak argitzen digun bezala, liburu honek Gizarte Zientziek Haur Hezkuntzari eta haurren garapen sozial eta pertsonalari egiten dieten ekarpena aztertzen du. Urteak dira jada Gizarte Zientzien ikaskuntza-irakaskuntzari buruz psikologia ebolutiboaren printzipioak gaindituztat eman direla, Piageten garapen kognitiboaren estadioen teoriaren determinismoa zaharkituta geldituz; hala, adin txikiko haurrak gai dira hainbat giza nozio ulertzen, ezagutzen eta ikasten (espazioa, denbora, kausalitatea...) baldin eta irakaskuntza-ikaskuntzarako metodologiak, teknikak eta prozedurak egokiak badira. Ideia honi helduz, aurkezten dugun liburuak Haur Hezkuntzako curriculumeko Giza eta Kultur ingurunearen ezagutza eremuan sakontzeko hainbat burutapen eta hausnarketa plazaratzen ditu 89 orrialde-tan, gazteleeraz argitaratu den berrienetarikoak izanik.

Edozein curriculumaren garapenaren ginetik, UNESCOk eta Jacques Delors informeak ezarritako hezkuntza zutabeak («egiten ikasi», «ezagutzen ikasi», «izaten ikasi», «bizitzen ikasi»), liburuaren ardatzean bilakatu-tuko dira eta honen antolaketa baldintzatuko dute, bakoitzari kapitulu bat eskaintzen baitzaie. Hauen barnean, 3 atal desberdinu daitezke, alderdi teorikoa eta praktikoari garrantzi bera emanez. Hasteko, printzipio bakoitzaren garrantzi psikopedagogikoa justifikatzen da, haurren garapenean nola eragiten duen aztertuz; bigarrenik, Gizarte Zientzia ezberdinek eta bereziki Historia, Geografia, Artea eta Filosofiak aurretik deskribatutako helburu pedagogiko bakoitza garatzeko egiten duten ekarpena aztertzen da. Amaitzeko, eremu teorikoa ondo gorpuztua izanik, alderdi praktikoak garrantzia hartzen du, haurretan pentsamendu konplexua eta dibergentea garatze aldera proposamen didaktiko berritzaileak aurkeztuz.

Proposamen didaktikoen helburuen artean, pentsamendu zientifikoaren eta gaitasunen garapenak lehentasuna du, irakaskuntza-ikaskuntzarako metodologia aktiboetan oinarrituz. Puntu honetan, Decrolyren interes guneak eta konstruktibismoaren ildoak proposamenen bizkarrezurrean bilakatuko dira eta haurren kuriositatea hurbileko ingurunearekiko ikaskuntza prozesuaren giltzarri izango da, ikaslea bera ikaskuntza prozesuaren protagonista nagusian bihurtuz. Ikaskuntza aktiboa bultzatzen duten prozeduren artean, ikerkuntza metodoaren erabilera goraipatzen da uneoro, haurren curiositatek abiatuz pentsamendu sortzailea bultzatzeko xedea hartzen duelarik.

Hau esanda, Haur Hezkuntzako irakasleentzat nahiz Hezkuntzako Fakultateko irakasle eta ikasleentzat liburu egokia da, unibertsitate esparrua eta eskola mundua lotzen baititu. Hau horrela, egileen artean Hezkuntza Fakultateko eta Haur Eskoletako irakasleak aurkitzen ditugu, bi erakunde arteko lankidetzak sumatzen delarik. Elkarlan honen eta hausnarketa sakon baten ostean, liburuak eskoletan bertan jaso diren esperientziak era egokian barneratzea lortu du, teoriak harago joanez eta Haur Hezkuntzako irakasleen egunerokoan kontutan hartu daitezkeen ideia anitz azalduz. Gainera, proposamen didaktikoak garatzeko sekuentziak deskribatzen ditu, pausuz pausu nola gauzatu behar diren argituz, askotan faltan botatzen den alderdia izanik. Beste behin esan beharra dago praktikan jarri egin diren proposamenen aurrean aurkitzen garela eta ateratako ondorioak Irakasle-eskolako ikasle eta irakasleekin partekatzen dituztela, hezkuntza munduan desiratutako erakunde arteko elkar ekintza era eraginkorrean aurrera eramantutarako. Arestian aurkeztutako liburuak lankidetzak honen emaitza da.

*Aritza Saenz del Castillo Velasco*

PRING, R. (2016)

*Una filosofía de la educación políticamente incómoda. Madrid: Narcea.*

Liburuaren edizioaz arduratu den María G. Amilburuk gaztigitzen digunez, bi lan kolektibotan argitara emandako bi kapitulu alde batera utzita, lehenbiziko aldiz irakur daiteke Richard Pringen pentsamendua gaztelaniaz liburu honen bidez. Alde horretatik, badirudi ez dela autore ezaguna mundu hispanoan, mundu anglosaxoian prestigioako hezkuntza-filosofotzat jotzen bada ere. Horretan datza, beraz, liburuaren ekarpen nagusia: «nazioarteko giro akademikoetan gehien errespetatzen ahots bat» gaztelaniazko irakurleengan hurbiltzean.

UNEDeko irakasle titularra den Amilbururen aurkezpenaz gainera, hamar artikulua edota hitzaldi topatuko ditu irakurleak. Lehenago han-hemenka esandakoak nahiz idatzitakoak bi zatitan sailkatuta daude liburuan:

lehen bost lanak «Hezkuntzaren xedeak» izenburua duen liburuaren atalean ageri dira eta gainerako bostak, berriz, «Hezkuntza Filosofiaren beharra hezkuntza praktiketan eta politikan» izenburupean bildu dira. Batean zein bestean, izenburuak berak ohartarazten duen bezala, pentsamendu sakonari gonbita egiten dion liburu baten aurrean gaude.

Hala, esate baterako, hezkuntzaren gaineko zenbait auziren erroetara jotzea proposatzen du filosofoak. Bilaketa *erradikal* horietan, bereziki liburuaren lehen blokean, hainbat galdera nagusi (eta ez beti ohiko) proposatuko ditu Pringek: zer da pertsona hezia izatea?; zein da hezkuntzaren testuingurua: monasterioa ala merkatua?; izan zen Dewey AEBetako hezkuntzaren salbatzaile ala Hitler baino okerragoa?... Galdera esplizituak gorabehera, liburua osatzen duten kapitulu guztietan aldarri etengabeko bat dago: pentsamendu filosofikoa ezinbestekoa da egungo hezkuntza praxia eta diseinu politikoak hobetzeari begira.

Pringek egiten dituen aldarri zehatzagoei dagokienez, gurean ere eza-guntzat jo daitezkeen zenbait kontu topatuko ditu irakurleak. Adibidez, Unibertsitatearen eta (gainerako) ikastetxeen arteko elkarlana funtsezkoa dela dio. Hain logikoa dirudien baina batzuetan hain gertagaitza den elkarlan horretarako, autoreak proposamen zehatzak aletzen ditu: Unibertsitatearen eginkizun nagusietako bat, baita irakaslegaien (zein irakasleen) prestakuntzan ere, pertsonak tradizio kritiko-zientifikoan txertatzea da; nolahi ere, auzitan jartzen du irakaslegaien prestakuntza Unibertsitateari eskusiban egokitu behar zaion, eta, geroko irakasleen trebakuntza horretan, eskolei eta dagoeneko lanean ari diren irakasleei paper garrantzitsu bat ere eskaintzen die egileak.

Erresuma Batuko Bigarren Hezkuntza Sistemaz ari dela, irakurle honen begietara inbidiarri suertatu den praktika zehatz baten berri ematen du. Izan ere, programa baten bitartez, Unibertsitateko irakasleek badute aukera, asteen behin, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan irakasle jarduteko. Helburu nagusia da gela errealekin kontakturik ez galtzea, ezagutza teorikoagoak eta ezagutza praktikoagoak uztartzea ahalbidetuz.

Etikaz ere luze eta zabal aritzen da egile ingelesa. Esate baterako, irakaslegaien eta irakasleen prestakuntzaz diharduelarik, jakintza teorikoaz eta gaitasun praktikoaz gain, konpromiso etikoa ere azpimarratzen du, eta hezitzaile ororen ezinbesteko elementua dela defendatzen du. Bestela gerta liteke, Pringek dioen bezala, historiak behin baino gehiagotan erakutsi diguna: ezagutza edota trebetasuna xede makurren zerbitzuko jartzea; hori ez da, bere hitzetan, pertsona hezia izatea. Alde horretatik, bereziki jakingarria da Bostongo Institutu bateko zuzendariak irakasle berriei bidaltzen dien gutuna, bertan, eduki akademikoen gaintik, ikasleen «benetako hezkuntzaz» galdetzen baitie zuzendariak. Halako balio etikoei «bertute» deritze Pringek.

Egilearen iritiz, mentalitate merkantilistak erabat kontrolatua du hezkuntza eta bere pentsamendua, eta azken urteotan —berak mundu anglosaxoia du hizpide— *adostu diren* hezkuntza planak eta legeak negozio mundutik eratorritako terminoz eta parametroz josirik ageri dira. Hartara, hezkuntza berreskuratzea ere proposatzen du (azken kapituluak izenburu horixe darama); horretarako, besteak beste, irakasle ororen lehen eginbeharra zein den gogora dakar: ikasleek lortu beharreko jakintzen eta ikasleen arteko bitartekaritza. Bestela esateko, irakaslea derrigortua dago ikasleekin konektatzera, etika, hausnarketa nahiz sormena aktiboki baliatuz eta baliaraziz.

Horrenbestez, beste kultura bateko autore garrantzitsu baten hezkuntza pentsamendua ezagutzeko balio dezake liburuak. Ezagutza horretan, irakurleak erabaki ahal/behar du noraino betetzen diren gurean Pringek lan honen bidez esandakoak. Alde horretatik, gure hezkuntza sistema pentsatzeko eta, beraz, hobetzeko baliagarria izan daiteke; puntu guztietan, normala den bezala, berdin zirikatzaile suertatzen ez bada ere.

*Edu Zelaieta Anta*

VENTOSA, V.J. (2016)

*Didáctica de la participación. Teoría, metodología y práctica. Madrid: Narcea.*

Parte hartzearen gaia, tradizionalki, ez da oso jorratua izan eta, jorratu den horietan, Psikologia arlotik (batez ere Psikologia Soziala) eta Soziologiari egin da. Liburu honen helburuetako bat parte hartzeak, aipatutako arlo horiekin ez ezik, hezkuntza ikuspegiarekin ere lotura estua duela erakustea da. Alde horretatik, gizartekoitasuna gizakiari dagokion berezko ezaugarria bada ere, bere garapena eta aplikazioa bakarrik testuinguru sozial egokietan egindako ikaskuntzaren bitartez eskura daiteke; horrek, ezinbesteanb, gizakia gero eta konplexuagoa den bizitzaren testuinguru ezberdinetan prestatzea eskatzen du.

Gizarte demokratiko ororen oinarria parte hartzea da. Alde horretatik, beharrezkoa da Parte hartzearen Didaktika eraikitzea, parte hartze hori helburu duen esku hartze eredu batetik abiatuz. Liburu honek parte hartzearen irakaskuntza-ikaskuntza prozesu arrazoitu bat ezartzeko oinarriak eskaintzen ditu; horretarako, liburuak erakusten dituen bost kapitulu bidez, Susperketa Soziokulturala baliabide egoki gisa aurkezten zaigu. Lehenengo kapituluak parte hartzearen mapa kontzeptuala ikuspegi soziopedagogiko batetik osatzen duten oinarriak aztertzen ditu.

Bigarren kapituluak, egungo pentsamendu-korronteak abiapuntutzat hartuta, Susperketa Soziokulturalaren errebisio eta eguneratze teorikoa eskaintzen du. Hirugarren kapituluak parte hartzearen didaktika baten garapenerako oinarriak erakusten ditu; horretarako, soziopedagogiaren, biologiaren, neurozientzien eta psikologia positiboaren ekarpenak baliatzen dira.

Laugarren kapituluak lidergo sozial parte hartzailearen ezaugarriak jorratzen ditu; lidergo era hau, gainontzeko lidergoetatik aldenduz, parte hartzearen hezitzaileek (suspertzaile soziokultural berriak) erakutsi behar dituzten ezaugarriei erantzuteko gai da. Liburuaren azken kapituluak etorkizuneko erronkak jorratzen ditu. Bertan, esku hartze sozioedukatio era berri bat aurkezten da, neuroanimazioa delakoa; horren bitartez, suspertze soziokulturalaren oinarriak neurozientiaren egungo eta etorkizuneko ekarpenei egokitzen zaizkie.

*Igor Camino Ortiz de Barrón*